



Dual Orokorra Europan
2026-2027 Erasmus+ Europar Programa
KA121 (Erdi-maila eta Hasierako
Lanbide Heziketa)

LAGUNTZEN BANAKETA

Bekak lantokiko prestakuntza gure erkidegotik kanpo egiteak eragindako gastuak ordaintzeko laguntza dira. **Ez dira inolaz ere gastuen guztizkoa estaltzeko ematen.**

BEKEN EZAUGARRIAK

Erdi-mailako prestakuntza-zikloetako ikasle guztiei 12 asteko gutxieneko aldia estaltzen zaie helmuga-herrialdean, honako hauek bilduz:

- Helmuga-herrialderako **bidaia**
- **Transferra** aireportutik/autobus geltokitik ostatura eta buelta
- **Tutorea** destinoko herrialdean
- **Partekatutako** ostatua
- Dagokion sektoreko enpresan **praktika** gainbegiratuak
- **Asegurua**
- Gainerako gastuentzako behin atzerrian egonda **hilabetero 350€ko diru sarrera** jasoko dute (familietan egongo diren ikasleak mantenua izango dute (gosari eta afariak). Hauek 200€ ko laguntza jasoko dute)

IZENA EMATEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- **CV-a ingelesez** (EUROPASS europar eredua erabili). Digitalizatua <https://europa.eu/europass/eportfolio/screen/cv-editor?lang=es>
- **Aurkezpen-gutuna ingelesez**
- **NAN** eskaneatua
- Ikaslearen izenean dagoen **kontu korrante baten titulartasunaren agiria** (baita adin txikikoak ere)
- **Aukera gutxiko** ikasleak direla ziurtatzen dituzten **agiriak** (EJko bekaduna, menpekotasun egoera duen norbaiten arduraduna...)

Adingabeek: Ertzaintzan eskuratutako baimen ofiziala behar dute. Otsailaren hasieran ikaslearen tutore legalak eskatuko du.